

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Familia da euskara ikasi eta erabiltzeko gunerik egokiena

Familia biderik errazena, ekonomikoena eta eraginkorrena da euskara ikasi eta erabiltzeko. Familian ikasi dutenak izaten dira euskara gehien ezagutu eta erabiltzen duten euskaldunak.

Euskararen Aholku Batzordeak emandako aholkuei jarraituz, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, HABE, programa berria ari dira lantzen familia bidezko hizkuntza transmisioari enfokatu eta indar berriak emateko. Programa berriak bere egingo ditu 1989-90etik erakundeen eta gizarte sektore desberdinen bidez egin diren esperientziekin lortutako berrikuntzak.

Programaren helburuak

1. Euskal familietan euskara indartzea, etxean nagusiki erabilia izan arte.

2. Erdal eta euskal gurasoen osatutako familiak euskalduntzea.

3. Erdal gurasoei dagokienez, euskararen aldeko jarrerak eta jokabideak agertzea umeen aurrean, umeak euskal ereduera bidaltzea eta euskaraz komunikatzeko oinarritzko mailara iristea.

Familia bidezko hizkuntza transmisioaren helburua betetzat joko da seme-alabak

euskal hiztun aktiboak izatean.

Hau guztia abian jartzeko, familiei zuzendutako sentsibilizazio eta informazio kanpainak egingo dira.

Ikastaroak

Euskara ikasteko eta lantzeko ikastaro bereziak eskainiko dira. Guraso euskaldunekin komunikatzeko erraztasuna da gehien landuko dena. Erdal gurasoekin, aldiz, estrategia komunikatiboak, elementu linguistiko mugatuekin gauza asko komunikatzeko gai izatea.


Ikastaroz kanpoko ekintzak

Programa ez da euskarazko eskoletara mugatuko. Indar handiagoa eman nahi zaio herrietan aisialdiaren alorrean egiten denari.

Guraso eta umeen arteko ekintza konpartituak bultzatuko dira: irteerak, jaialdiak, antzerkiak, etab.

Programaren garrantzia

M. Karmen Garmendiak Eusko Legebiltzarrean 1991n egin zuen agerraldian argi esan zuen: "Familia oinarri-oinarritzko gune edo eremu da, familiak bermatzen baitu hizkuntza belaunaldi batetik bestera igaroko dela. Hori izan ezean, beti hutsetik abiatu beharko lukeen makina bihurtuko litzateke hezkuntza sistema, eta, onenean ere, berebiziko ahalegina egin ondoren ez luke, inoiz, familiak adinako etekin edo emaitzarik lortuko".



Euskara familian ikasi dutenak izaten dira euskara gehien ezagutu, eta erabiltzen dutenak.

Juan Joxe Agirre, liburuzain eta liburuzale

Frankismoaren azken urteetan eta diktadura ostean Euskal Herrian plazaratu diren argitalpenen berri nahi duenak Lazkaoko beneditarren komentura jo besterik ez du, hantxe baitaude era guztietako argitalpen garaikideak eta lehenagokoak biltzen dituen liburutegirik osotuena eta aita.

Juan Joxe Agirre liburuzaina.

Juan Joxe Agirre, 60, Alegian jaio, Gipuzkoan, eta hamahiru urterekin Juan Joxe Agirre Lazkaoko beneditarren

komentuan sartu zen. Fraide izan aurretiko ikasketak Lazkaon eta Baionatik hurbil dagoen Belokeko abadian egin zituen.

Komentuko liburutegiaren ardura hartu zuenean Bartzelonara joan zen Bibliotekonomia ikastera. Urtebetez, ikasiaz batera, Montserrateko

beneditarren komentuko liburutegian egin zuen lan. "Hantxe egin zitzaidan 'liburu gosea', eta hantxe ikusi nuen nola Kataluniako historia garaikideko



Juan Joxe Agirre

argitalpen guztiak biltzen zituzten".

Itzulitakoan Euskal Herrian ateratzen ziren argitalpen guztiak biltzeari ekin zion: aldizkariak, panfletoak, liburuak... Laster jendea hasi zitzaion materiala bidaltzen.

Dagoeneko 2.500 aldizkari desberdin izango ditu bilduta.

Unibertsitateko irakasleak eta ikerlariak izaten dira Lazkaon kontsultak

egiten. Garai batean bi bekadun izan zituen sailkatze lanetan laguntzen, baina orain bakarrik dabil. "Esan jendeari aldizkariak eta bidaltzeko, hemen jaso, sailkatu eta gorde egingo ditugula eta". Aste barruan liburutegia zabalik dago eta aita Juan Joxe prest erakusteko.

Administrazio hizkera

Sarri askotan urteetan aurrera doazen herritarrek ebazpenez eta xedapenez jositako agiriak jasotzen dituzte administrazioetik, baita eurei laguntzeko sortu diren erakundeetatik ere. Itzulpen kutsuko testuak, esaldi amaigabeak, hitz eta berba ezezagunak... euskaraz baino ez dakiten asko euren hizkuntzaren ezagupenez zalantza egiteraino daramatzatenak.

Sarri askotan testu horien egileek ez dituzte kontutan hartzen hartzailaren adina, kultura maila, lanbidea, alfabetatua dagoen, batua ezagutzen duen ala ez...

Arazoak zenbait jenderen kezka eta ardura sortu du. Hori dela eta, Gipuzkoako gizarte langileek gai hori jorratuko duen mahaingurua antolatu dute martxorako. Kontua da hizkuntza era ulergarrian erabiltzea.

AEKk euskara ikasteko metodoa aurkeztu du.

AEKk Euskara ahoz aho, euskara ikasteko liburu berria aurkeztu zuen Bilbon, Euskaltzain-diaren egoitzean. Aurkezpe-nean lehen mailari dagozkion materialen berri eman zuten: lau koaderno, bideo zinta, kasetea eta filmina joko bat. AEKko zerbitzu didaktikoek bi urte igaro dituzte hau lantzen.

Bilera Bruselan. Europako Batzordeak deituta, hainbat erakundetako ordezkari bildu zen otsailaren 11n Belgikako eta Europako hiriburuan. Bertan hizkuntza gutxituen aldeko ekintzabide europarraren nondik norakoa aztertu zen. Maiz gertatzen ari den bezala, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza nagusietako ordezkariak ere bileran izan ziren.

Laneko hizkuntza. Euskal Kulturaren Batzarreak, EKBk, argitaratzen duen Bat aldizkariak euskararen normalkuntza lan munduan aztertzen duen dossier mamitsua dakar bere 11. zenbakian. Dosierrak lan teorikoa biltzen du, datuak, Arrasateko Euskalan taldearen esperientzia eta HPIN, HABE eta Elhuyar-eko zenbait par-taidek hainbat enpresa-tan egindako lanak.

Elkar Hitz. Bilboko Kurkuluxa eta Iparraldeko Ikas kultur elkarteek antolatuta, aurrean ere Elkar Hitz, Hegoa eta Iparra Bat kanpaina egingo da martxoan Nafarroako Bakaiku herrian. Ipar eta Hego aldeko neska-mutilak elkartuko dira euskara mintzatu lantzeko. Eskolaz kanpo jolasak, irteerak eta hainbat ekintza osagarri antolatu dituzte. Elkar Hitz 1992an sortu zen.

Euskararen erabilera zuzena aztertu zen Bilbon

Bere 75. urteurrenaren ospakizunen barruan Euskaltzaindiaren Jagon Sailak Hizkuntzaren erabilera zuzena gaiaren inguruko jardunaldiak egin berri ditu otsailaren 24tik 26ra bitartean Bilbon.

Bi helburu nagusi izan ditu: beste herrietako esperientzien berri ematea eta eguneroko bizimoduarekin lotura dituzten alorretako premiarik garrantzitsuenak antzematea.

· **Beste herrietako esperientzia.** Katalunia, Balearak, Valentzia, Galizia eta Euskal Herriko hizkuntza erakundeek beren herrietan nola zaintzen duten hizkuntzaren erabilera zuzena azaldu zuten. Zer egiten den eta zer dagoen eginkizun izan zuten aztergai.

· **Euskal Herria.** Euskal Herriari dagokionez, hiru arlo nagusitan landu zen euskararen erabilera zuzena: administrazioan, hezkuntzan eta komunikabideetan. Denetan ere eguneroko erabileran aurkitzen

diren arazo praktikoak ikertu ziren.

· **Administrazioa.** M. Karmen, Garmendiak, Jose M. Rodriguez Ochoak, Andres Urrutiak eta Jose L. Lizundiak administrazioaren jardura aztertu zuten hizkuntzaren erabilera zuzenari dagokionez.

· **Hezkuntza.** Mikel Zalbidek, Jose M. Berasategik, Ibon Olaziregik, Andres Iñigok, Patxi Iñigok eta Xabier Kintanak eskolan eta unibertsitatean hizkuntzaz egiten den erabilpena eta sortzen dituen arazoak jorratu zituzten.

· **Komunikabideak.** Antton Aranburu (Euskadi Irratia), Luzien Etxezarreta (Euskaldunon Egunkaria), Patxi Petrirena (Euskaldunon Egunkaria) eta Igone Etxebarria (EITB) izan ziren hizlariak.

Jardunaldien barruan, eta orain 25 urte bezala, Euskaltzaindiak anaitasunezko ekitaldia egin zuen espainiar, kataluniar eta galiziar hizkuntza akademiekin batera.

Myriam Alkain, 31, donostiarra, Bruselako Informazio Bulegoan lan egiteko aukeratu dute, Hizkuntza Gutxiengotuen Bulego Europarrean. Euskadi Irratian, HPINen eta HAEE/IVAPen lan egin du aurretik.

Alejandro Arizkun, 42, irakasle madrildarra Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen ondokoa da euskararen normalizaziorako. Ekonomian doktorea, Madrilgo Complutense Unibertsitatean egin zituen ikasketak. Euskara ikasten ari da.

Gregorio Arrien, 58, irakasle kortezubiarrak *Bizkaiko Ikastolak, 1957-1972* liburua argitaratu du Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Madrilgo Complutense Unibertsitatean Historiako doktoradutza lortu zuen *Bizkaiko auzo eskolak 1898-1936* lanarekin. Eubako Lauaxeta ikastolako irakaslea da.

Argitalpenak

Bide Seinaleak

Erakunde asko aritu da elkarlanean liburu hau egiteko: EAEko foru aldundiak, Nafarroako Gobernua, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak, Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila, HAEE/IVAP eta HPIN. Euskal Herriko kale eta errepideetan ikus daitezkeen bide seinaleetako testuen euskal ordainak jasotzen ditu.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtono Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Kalitatezko erabilera

G• Zeintzuk dira hizkuntzaren kalitatezko erabilera bete behar dituen baldintzak?

E• Nire ustez bete beharreko baldintzak hauek dira: zuzentasuna eta egokitasuna.

Lehenak nire iritzi apalean, honako hau esan nahi du: hizkuntzak berebereak dituen arauak betetzea (arau fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak...). Bigarrenak, berriz, jasotzaileak (baldintza batzuk betetzen dituen jasotzaileak, jakina) arazorik gabe, eragozpenik gabe jasotzeko moduan adieraztea.

Bi baldintza horiek betetzen direnean esan daiteke hizkuntzaren erabilera kalitate onekoa dela, behar den bezalakoa.

Arlo horretan lan handia egin bada ere, oraindik hamaikatzu lan egin beharko dugu mundu modernoaren eta ez hain modernoaren hizkuntza beharrei zuzen erantzuteko.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Brusselan Killilea txostena onartu zen.

Europako Batasunak dituen 344 milioi bizilagunetatik, ia 50 milioi -zazpitik bat- EBko hizkuntza ofizialak ez diren beste hizkuntzetan mintzatzen dira. Joan den otsailaren 9an Europako Parlamentuak hizkuntza gutxiuak deituriko hizkuntzak babesteko egin den Killilea txostena onartu zuen.

Killilea eurodiputatu irlandarrak egin duen txostenak hainbat gomendio egiten ditu Europako hizkuntza gutxituen egoera hobetzeko.

- Herri guztiek dute beren hizkuntza eta kultura errespetatuak izateko eskubidea.
- Europa demokratikoa eraikitzeko ezinbestekoa da hizkuntza guztiak babestea eta bultzatzea.
- Estatuek gutxiengo linguistikoak onartu behar dituzte

eta hauek gordetzeko eta garatzeko bitarteko legalak eskaini behar dituzte.

• Estatutu legal batez babestuak egon beharko lirateke hizkuntza eta kultura guztiak.

Gutxien zabaldua dauden hizkuntzei babes juridikoa eta dirulaguntzak eman behar zaizkie.

• Europako Batasuneko kide izanik oraindik sinatu ez duten estatuei, Europako Hizkuntzen Hitzarmena izenpetzea eskatzen zaie. Frantziak, adibidez, oraindik ez du karta hori izenpetu.

Killilea txostena egiteko eskaera 1990ean egin zuen Europako Parlamentuak. 1987ko Kuijpers txostenean oinarrituta hasi zen lanean Killilearen taldea. 1992ko urtarrilean txostenaren lehen aurkezpena egin zenetik, hainbat pasarte kenduta iritsi da azken bozketara.

✓ Kontutan hartzeko

• **Ekin euskarari.** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren erakusketa ibiltaria Lasarte-Orian izango da ikusgai martxoaren 11tik 20ra bitartean.

• **Gramatika Jardunaldiak.** Euskaltzaindiak antolatuta, Iruñean izango dira, martxoaren 25ean eta 26an. Juntagailuen gainean

egindako lanak eztabaidatuko dira; baita Leioako Biltzarrerera eramango diren gaiak ere.

• **Dialektologia Piriniarrari buruzko I. Simposioa.** Vielhan izango da, Aran bailaran, martxoaren 17tik 19ra. Pirinioetako dialektoen aztertzaileak harremanetan jartzea du helburu.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA